


**“GAZTEAK ETA EUSKARAREN ERABILERA:  
GIZARTEAREN OROKORTASUNEAN EUSKARAREN  
ERABILERA AREAGOTZEKO, GAZTEEK TALDE  
ESTRATEGIKO MODUAN ERAGITEKO DUTEN  
GAITASUNA.”**



Euskara Elkartea

Eibarren, 2014ko martxoaren 13an  
Behin betiko txosten grafikoa  
...eta kitto! Euskara Elkartea

## SARRERA

...eta kitto! Euskara Elkartearen misioa euskararen erabilera sustatzea da. Helburu horretara heltzeko, hainbat jarduera eta programa garatzen ditugu urtean zehar, zuen aldetik aski ezagunak direnak.

Eibarko Udalak hala eskatuta, euskararen erabilerearen kale neurketa ere burutzen dugu 2000. urteaz geroztik, urria erdialdean, urtero-urtero.

Kale neurketan, adina, zonaldea, testuingurua eta helduen presentzia kontutan hartzen ditugu, eta horretaz gain gazteen erabilerearen neurketa berezitua ere egiten dugu.

Kale neurketetako datuek argi adierazten digute euskararen erabilerean adinak salto bat adierazten duela eta momentu estrategikoa dela gaztaroa. Umeen erabilera nahiko altua izatetik gazteen erabilera ertain-baxua izatera pasatzen da, helduen erabilera baxura hurbilduz.

2011n hasi ginen gai honetaz arduratzen eta sakontzeko beharra somatzen. Izan ere, ume izatetik heldu izaterako bide horretan "zerbait" gertatzen da eta euskararen erabilerean jaitsiera ematen da. Gaitasuna bada, zergatik ez dugu hitz egiten? Euskara bizitzeko funtzio guztiak betetzeko gai da? Prestigiorik bada? Hala ez bada, non eragin beharko genuke? Helduen portaerak zein mailatan eragiten du gazteengan? Era berean, gazteen portaerak nola eragiten du umeengan?

Guzti honi erantzun nahian ikerketa egin beharra ikusi genuen eta 2012an hainbat aditurekin (soziologoak, euskalgintzako kideak, bestelako eragile sozialak...) bilerak egin ostean ikerketaren gaia definitu genuen:

**"Gazteak eta euskararen erabilera: gizartearen orokortasunean euskararen erabilera areagotzeko, gazteek talde estrategiko moduan eragiteko duten gaitasuna."**

Gazteak aukeratu izana, ez da esaten dugun moduan kasualitatea izan, adin talde erabat estrategikoa dela uste dugu. Izan ere, etorkizuneko helduak izango diren ebidentzia alde batera lagata, erabilera esparru gehien ikutzen dituen adin-taldea dela esan dezakegu; hezkuntza, aisialdia, lan mundua, familia, sare sozialak... Horregatik, esparru guzti horiek aztertu ahal izateko, gaztaroa modu zabalean ulertzea erabaki dugu, 18-28 urte bitarteko gazteengan fijatuz.

## METODOLOGIA

Ikerketari baliagarritasuna eta fidagarritasuna eskainiko dion lagin errepresentakorra hartu eta gaitasuna eta erabileraren arteko erlazioa aztertu dugu hainbat esparrutan: familia (gurasoak, anaia-arrebak...), hezkuntza, lagunartea, lan mundua, aisialdia...

Alderdi teorikoa landu eta gero, interesatzen zitzaizkigun **aldagaiak** zehaztu eta inkesta diseinatzeari ekin genion. Horrela ba ondorengo aldagaiak hartu ditugu kontutan:

- Adina
- Generoa
- Ama hizkuntza
- Euskara gaitasuna
  - ahoz
  - idatziz
  - irakurriz
- Ikasketen hizkuntza eredu eta erabilera ikaskideekin
  - batxilergoa: eredu, non, ikaskideekin
  - Lanbide Heziketa: eredu, non, ikaskideekin
  - unibertsitatea: eredu, non, ikaskideekin
- Familia
  - gurasoekin
  - anai-arrebeekin
  - bikotearekin
  - seme-alabekin
- Aisialdian
  - kuadrillan
  - antolatutako ekintzetan
  - sare sozialak
  - komunikabideak
- Lan mundua
  - ahoz
  - idatziz



# Zenbat eta norekin egiten duzu EUSKARAZ?

ADINA		<input type="checkbox"/> 18-21	<input type="checkbox"/> 22-25	<input type="checkbox"/> 26-29			
		<input type="checkbox"/> GIZONEZKOA			<input type="checkbox"/> EMAKUMEZKOA		
AMA HIZKUNTZA		<input type="checkbox"/> EUSKARA			<input type="checkbox"/> BESTE BAT		
<b>EUSKARA GAITASUNA</b>							
EUSKARAZ	AHOZ	<input type="checkbox"/> %0-10	<input type="checkbox"/> %11-30	<input type="checkbox"/> %31-50	<input type="checkbox"/> %51-70	<input type="checkbox"/> %71-90	<input type="checkbox"/> %91-100
	IDATZIZ	<input type="checkbox"/> %0-10	<input type="checkbox"/> %11-30	<input type="checkbox"/> %31-50	<input type="checkbox"/> %51-70	<input type="checkbox"/> %71-90	<input type="checkbox"/> %91-100
	IRAKURRI	<input type="checkbox"/> %0-10	<input type="checkbox"/> %11-30	<input type="checkbox"/> %31-50	<input type="checkbox"/> %51-70	<input type="checkbox"/> %71-90	<input type="checkbox"/> %91-100
<b>IKASKETEN HIZKUNTZA EREDUA ETA ERABILERA IKASKIDEekin</b>							
BATXILERGOA		<input type="checkbox"/> A	<input type="checkbox"/> B	<input type="checkbox"/> D	NON:		
Batxilergoko ikaskideekin		<input type="checkbox"/> %0-10	<input type="checkbox"/> %11-30	<input type="checkbox"/> %31-50	<input type="checkbox"/> %51-70	<input type="checkbox"/> %71-90	<input type="checkbox"/> %91-100
LANBIDE HEZIKETA		<input type="checkbox"/> A	<input type="checkbox"/> M	<input type="checkbox"/> D	NON:		
Ikaskideekin		<input type="checkbox"/> %0-10	<input type="checkbox"/> %11-30	<input type="checkbox"/> %31-50	<input type="checkbox"/> %51-70	<input type="checkbox"/> %71-90	<input type="checkbox"/> %91-100
UNIBERTSITATEA		<input type="checkbox"/> A	<input type="checkbox"/> D	NON:			
Ikaskideekin		<input type="checkbox"/> %0-10	<input type="checkbox"/> %11-30	<input type="checkbox"/> %31-50	<input type="checkbox"/> %51-70	<input type="checkbox"/> %71-90	<input type="checkbox"/> %91-100
<b>FAMILIA</b>							
EUSKARAZ	GURASOekin	<input type="checkbox"/> %0-10	<input type="checkbox"/> %11-30	<input type="checkbox"/> %31-50	<input type="checkbox"/> %51-70	<input type="checkbox"/> %71-90	<input type="checkbox"/> %91-100
	ANAI-ARREBEKIN	<input type="checkbox"/> %0-10	<input type="checkbox"/> %11-30	<input type="checkbox"/> %31-50	<input type="checkbox"/> %51-70	<input type="checkbox"/> %71-90	<input type="checkbox"/> %91-100
	BIKOTEAREKIN	<input type="checkbox"/> %0-10	<input type="checkbox"/> %11-30	<input type="checkbox"/> %31-50	<input type="checkbox"/> %51-70	<input type="checkbox"/> %71-90	<input type="checkbox"/> %91-100
	SEME-ALABEKIN	<input type="checkbox"/> %0-10	<input type="checkbox"/> %11-30	<input type="checkbox"/> %31-50	<input type="checkbox"/> %51-70	<input type="checkbox"/> %71-90	<input type="checkbox"/> %91-100
	<b>AISIALDIAN</b>						
EUSKARAZ	KUADRILLAN	<input type="checkbox"/> %0-10	<input type="checkbox"/> %11-30	<input type="checkbox"/> %31-50	<input type="checkbox"/> %51-70	<input type="checkbox"/> %71-90	<input type="checkbox"/> %91-100
	ANTOLATUTAKO EKINTZETAN	<input type="checkbox"/> %0-10	<input type="checkbox"/> %11-30	<input type="checkbox"/> %31-50	<input type="checkbox"/> %51-70	<input type="checkbox"/> %71-90	<input type="checkbox"/> %91-100
	SARE SOZIALAK	<input type="checkbox"/> %0-10	<input type="checkbox"/> %11-30	<input type="checkbox"/> %31-50	<input type="checkbox"/> %51-70	<input type="checkbox"/> %71-90	<input type="checkbox"/> %91-100
	KOMUNIKABIDEAK	<input type="checkbox"/> %0-10	<input type="checkbox"/> %11-30	<input type="checkbox"/> %31-50	<input type="checkbox"/> %51-70	<input type="checkbox"/> %71-90	<input type="checkbox"/> %91-100
	<b>LAN MUNDUA</b>						
EUSKARAZ	AHOZ	<input type="checkbox"/> %0-10	<input type="checkbox"/> %11-30	<input type="checkbox"/> %31-50	<input type="checkbox"/> %51-70	<input type="checkbox"/> %71-90	<input type="checkbox"/> %91-100
	IDATZIZ	<input type="checkbox"/> %0-10	<input type="checkbox"/> %11-30	<input type="checkbox"/> %31-50	<input type="checkbox"/> %51-70	<input type="checkbox"/> %71-90	<input type="checkbox"/> %91-100

Ondorengo pausoa lagina zehaztea izan zen. **Lagina** errepresentakorra izatea ezinbestekoa da ikerketak fidagarritasuna izan dezan. %95eko fidagarritasuna izatea nahi genuen eta horretarako erroldak emandako datuen arabera 487 lagun elkarrizketatu behar genituen. Ikerketako galdetegia **aitorpen** bidez jasotzen denez, inkestatzaileek modu egokian betetzea eta alde zuzen formazioa jasotzea nahitaezkoa zenez, ekainean zehar hainbat formazio-saio eskaini zitzaizkien lan horretan aritu ziren 4 inkestatzaileei.

Ekainaren 10etik 21era **kontrol taldeari** pasatu zitzaion galdetegia. Kontrol taldeak emandako erantzunak eta inkesta betetzerakoan sortutako zailtasunak gainditu ondoren, lagina handitzea erabaki genuen. Lagina handitu izanak atzerapena sortu digu datuen kudeaketa eta hustiaketa lanetan baina fidagarritasuna handitzeak merezi izan duelakoan gaude.

Modu horretan, uztailaren 1etik 30era lagin osoari pasatu zitzaion galdetegia.

Horrela ba **618 lagun** elkarrizketatu ditugu, beti ere erroldak emandako datuen arabera sexu eta adinaren arabera proportzionaltasunari eutsiz.

Modu honetan **%96tik gorako fidagarritasun maila** lortu dugu, hau da errorea %4ra ez litzateke helduko.

Iraila erdikaldean datuen kudeaketari ekin genion. Lagina hain zabala izanda datuak modu egokian gorde eta kudeatzea oso garrantzitsua da ikerketatik eratorritako emaitzak fidagarriak eta baliagarriak izan daitezen.


Urriaren amaieran kontrol taldearen lehen emaitzak atera genituen eta azaro erdikaldean lagina bere osotasunean aztertzen hasi ginen.

Lagina hain handia izatean datuen kudeaketa zein azterketan uste baino denbora gehiago behar izan dugu.


Baina abenduaren erdikaldean lehen emaitza deskriptiboak lortu ditugu.

Momentu honetan aldagai guztien azterketa falta zaigu, ondoren aldagaien arteko erlazioa aztertzeko eta ondorioztapenari heltzeko.


### ADINAREN banaketa




### GENEROAREN banaketa



### AMA HIZKUNTZAREN banaketa




### GAITASUNA EUSKARAZ (AHOZ)







### GAITASUNA EUSKARAZ (IDATZIZ)



### GAITASUNA EUSKARAZ (IRAKURRIZ)




### BATXILERGOA: IKAS EREDUA




### BATXILERGOA: IKASTETXEA

536 erantzun



### BATXILERGOA: IKASKIDEEKIN EUSKARAZ


536 erantzun




### BATXILERGOAN EUSKARAZ

%0-10	%11-30	%31-50	%51-70	%71-90	%91-100	
25	13	5	3	0	0	46
1	12	21	16	6	0	56
2	10	28	58	71	25	194
26	28	25	7	3	2	91
18	17	27	30	17	5	114
%0-10	%11-30	%31-50	%51-70	%71-90	%91-100	
54%	28%	11%	7%	0%	0%	
2%	21%	38%	29%	11%	0%	
1%	5%	14%	30%	37%	13%	
29%	31%	27%	8%	3%	2%	
16%	15%	24%	26%	15%	4%	

### BATXILERGOKO IKASKIDEEKIN EUSKARAZ





## BATXILERGOA: IKASKIDEEKIN EUSKARAZ



# BATXILERGOA: IKASKIDEEKIN EUSKARAZ

## Joera lerroak




	4,3
	3,3
	3,2
	2,3
	1,7

Oharra: 1= %0-10; 6=%91-100


### LANBIDE HEZIKETA: EREDUAK

Erantzunak: 190




### LANBIDE HEZIKETA: IKASTETXEA

Erantzunak: 187




## LANBIDE HEZIKETA: IKASKIDEEKIN EUSKARAZ

Erantzunak: 177






### LHKO IKASKIDEEKIN EUSKARAZ




### UNIBERTSITATEAN: IKASKIDEEKIN EUSKARAZ

Erantzunak: 380



## UNIBERTSITATEKO IKASKIDEEKIN EUSKARAZ


Unibertsitate eremuen arabera




Hiri buruetan, guztiak hartu dira aintzat (e.b. Bilbon: EHU -Leloa + Bilbo- eta Deustu)

### LAGUNARTEAN EUSKARAZ

Batez bestea: %36,4




### LAGUNARTEAN EUSKARAZ ADINAREN ARABERA




Lerro urdinak batez besteak lotzen ditu

### LAGUNARTEAN EUSKARAZ GENEROARAN ARABERA



Urdline batez bestak; gorritz mediana. Izartxoak, ez ohiko balloak


### LAGUNARTEAN EUSKARAZ IKASTETXEAREN ARABERA




Lerroak batez besteak lotzen ditu. Izartxoak, bali

## GURASOEKIN EUSKARAZ

Batez bestea: %38,4




### GURASOEKIN EUSKARAZ ADINAREN ARABERA




18-21 urtekoen batez beste bikilagoa, esanguratsuki ezberdina da besteekiko

### GURASOEKIN EUSKARAZ GENEROAREN ARABERA




### GURASOEKIN EUSKARAZ IKASTETXEAREN ARABERA




### ANAI-ARREBEKIN EUSKARAZ

Batez bestea: %45,8




### ANAI-ARREBEKIN EUSKARAZ ADINAREN ARABERA






### ANAI-ARREBEKIN EUSKARAZ IKASTETXEAREN ARABERA



Gorri medianaren bal  
 IA I  
 jaten c


### BIKOTEAREKIN EUSKARAZ

Erantzunak: 365




### SEME-ALABEKIN EUSKARAZ

Erantzunak: 19




## ANTOLATUTAKO EKINTZETAN EUSKARAZ

Erantzunak: 474




### SARE SOZIALETAN EUSKARAZ


Erantzunak: 546



### SARE SOZIALETAN EUSKARAZ




### SARE SOZIALETAN EUSKARAZ GENEROAREN ARABERA



Urdinez batez besteak. Gorriz medlanak (balloak 1 -%0-10- eta 6 -%91-100- artean)


### KOMUNIKABIDEAK

Erantzunak: 595




### LAN EREMUAN EUSKARAZ AHOZ

Erantzunak: 354




### LAN EREMUAN EUSKARAZ AHOZ



Urdinez batez besteak. Gorritz medlanak. Balloak 1 -%0-10- eta 6 -%91-100- artean

## LAN EREMUAN EUSKARAZ IDATZIZ

Erantzunak: 276





#### AZTERTZAILEAREN BEHIN-BEHINEKO ONDORIOEN LABURPENA:

- 1.- Ez da gehiagi egiten euskaraz dagoen gaitasuna kontutan hartzen badugu.
- 2.- 18-21 urte artekoek gutxiago egiten dute zaharragoek baino edozein eremutan, dela lagunartea, eskola, familia...
- 3.- Emakumezkoek gehiago egiten dute gizonezkoek baino, batez ere lagunartean eta lantokian.
- 4.- Alde handiak daude batxilergoa ikasi duten ikastetxearen arabera. Aldatzekoak oso baxu geratu dira, baita La Sallekoak ere. Uni eta Armeria erdi aldean eta aurrean Institutuan aritzen edo aritu direnak. Zein eskolatatik igaro diren edozein eremutan igartzen da (lagunartean, familian eta abarretan)
- 5.- Lanbide heziketan berdintsu daude hiru eskolak (Uni, Armeria, Lanbide Eskola) baina askoz hobeto Eibartik kanpo LH ikasten dutenak.
- 6.- Unibertsitate ikasketak egiten edo egin dituztenen artean ere nabaria da euskara gehiago egiten dutela Eibartik kanpo daudenak (Iruñean daudenak izan ezik) Eibarko EHU daudenak baino.
- 7.- Lagunartean %50 baino gehiago euskaraz, %31k egiten du, ez besterik. Euskaraz, soilik, %7k.
- 8.- Gurasoekin %50 baino gehiago euskaraz % 36,7k egiten du. Euskaraz bakarrik, %11k.
- 9.- Neba-arreben artean %50 baino gehiago %38,6k egiten du. Euskaraz bakarrik, %13k.
- 10.- Bikotearekin %50 baino gehiago %48k egiten du. Euskaraz bakarrik, %17k
- 11.- Sare sozialetan %50 baino gehiago %24,4k egiten du. Euskaraz bakarrik, %3,5k
- 12.- Lanean ahoz %50 baino gehiago %55,1k egiten du. Euskaraz bakarrik, %17k